

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2019ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena onartu du; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi Fundazioa eta Kabia), haren merkataritzako foru sozietateen kontuek (IZFE, Bidegi eta Etorlur Gipuzkoako Lurra) eta foru fundazioek (Kiroldgi, Sueskola Gipuzkoa, Adinberri, Ziur, Mubil eta Naturklima, Gipuzkoako aldaketa klimatikoa behatzeko fundazioa).

HKEEk **aldeko iritzia plazaratu du Gipuzkoako lurralde historikoaren gainean**, unean uneko salbuespenak azpimarratu dituela. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFAREN Diruzaintza Geldikina 10,9 milioi euroan handituko luketenak. GFAREN Egoeraren Balantzeari dagokionez, ez ditu jasotzen ez zaharren egoitzetarako hamabi eraikinen lagapen doakoa, ez hiruren obra publikoko administrazioeko emakidak ere. Konpromiso-kredituen egoerak ez ditu Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari 2020 eta 2029 bitartean egin beharreko 59 milioi euroren transferentziak barne hartzen. Gainera, ezin zehaztu izan dira GFAREN balantzeko eta Etorlurren aktibo arrunteko ibilgetu material eta ukiezineko zenbait kontu-sail. Azkenik, adierazi da informazio eza dagoela Bidegiko Urteko Kontuetako ziurgabetasun baten gainean, salgaiak garraiatzeko ibilgailu pisutsuentzat GLHko A-15 eta N-I gaitasun handiko errepideetan, zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordaintzen den kanon kontzeptuan 2018an eta 2019an erregistraturiko diru-sarrerei buruzkoan. Auzitegi Gorenaren 2021eko otsailaren 16ko epaiaren arabera, 2018an kanona arautzen duen 7/2016 Foru Araua behin betiko deusez bihurtu da, eta ezin izan da kuantifikatu haren babesean aitortutako diru-sarrereren gaineko eragina.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren **finantza egoera** aztertu du eta azpimarratu du diru-bilketak gora egin duela eta horrek bide eman duela aurreko ekitaldiko kapitalezko eragiketen mailari eustea eta GFAREN guztizko zorpetzea 86,8 milioi euroan murriztea.

Bestalde, HKEEk azpimarratu du 2020an diru-sarrerek behera egin dutela COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla** adierazi du. GFAk Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari igorri dio eta administrazio honek ez du salbuespenik adierazi.

Fiskalizatutako erakundeek **zuzentasunez bete dute** euren ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia** eta unean uneko akatsak azaleratu dira **Langileriaren eta Administrazioko kontratazioaren ataletan**; bada, **Langileen atalean** GFAn eta Uliazpin enplegatuei ordaindutako ordainsari jakin batzuetan PFEZa salbuetsi zaie eta Adinberri, Gipuzkoako aldaketa klimatikoa behatzeko fundazioa eta Ziur fundazioetan birjartze-tasarik izan gabe lan kontratu finkoko langileen kontratazioak egin dira; **Administrazioko kontratazioaren atalean, berriz**, dagokion esleipen prozedura baliatu gabe guztira 3,4 milioi euroren gastuak egin dira GFAn, eta GFAn eta Kabian lizitazio prozedura atzerapenez abiarazi da zerbitzu-kontratuetan, guztira 10,8 eta 3,1 milioi euroren zenbatekoan hurrenez hurren.